

## Edure Begiristain Gasteiz

Arabako politika ongi ezagutzen du Ramiro Gonzalez EAJko ahal-dungai nagusiak (Burgos, Espainia, 1962). Bi legegaldi daramatza biltzarkide modura, eta lehen aldia du hautagai gisa. «Indartsu» sentitzen da, irabazteko benetako aukerekin.

**Inkestek diote bozak irabaziko dituzula. Zeure burua faboritotzat duzu?**

Errealistak izan behar dugu, herrialde honetan alderdi batek baino gehiagok pisu handia izango duelako. Baina egia da inkestek faboritotzat jotzen gaituztela eta gu indartsu sentitzen garela. Goazen tokietara goazela, irabazteko aukera dugula sumatzen dugu.

**Esan izan duzu PPK ez duela aukerarik Araban irabazteko eta hirugarren indarra izango dela. Zergatik zaude hain seguru?**

PP oso higituta dagoelako. Arabako biztanleen gehiengo oso nekatuta dago PPrekin, ikusten duelako Arabako politika kaltegarriak aurrera eramanez. Eta hala da. Madrilik agindutako zentralizazio eta murrizketen politikak orpo orpo jarraitu die De Andresek legegaldi honetan. Horegatik sumatzen dugu aldaketarako grina hori Araban.

**Inkestek emaitza onak ematen dizkiete EH Bilduri ere...**

Uste dut EH Bilduren aurretik gaudela. Egia da koalizioak indar handia duela herrialdean, eta hala erakutsi dutela azken hauteskunde deialdiek, baina une honetan EAJ aurretik dago. Gainera, lurralde osoan presentzia handia duen alderdi bakarra gu gara, eta eskualde guztietan dugu pisua. Besteek ezin dute gauza bera esan.

**Ez al da EH Bildu zuen aurkari zuzena?**

Ez. EH Bilduk indar handia duela ez dugu ukatzen, baina ez dugu uste Araban bozak irabazteko moduan dagoenik. Egia da Europako bozak irabazi zituela, baina kontuan hartu behar da Europakoetan EAJk emaitzak kaskarragoak izaten dituela beti. Gure hautesleria ez da asko mugitzen Europako bozetan, eta, batez ere, Eusko Legebiltzarreko eta udal eta foru hauteskundeetan mobilizaten da.

**Arabako mapa politikoa are eta konplexuagoa izango da orain, alderdi berriekin. Nola ikusten duzu?**

Uste dut hautagaizta berrieta Ciudadanosek eta Ahal Duguk aukerak dituztela erakundeetan sartzeko. Argi dut Ahal



ILANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

«Babes handiena lortzen duenak agindu beharko luke»

**Ramiro Gonzalez • EAJko Arabako ahal-dungai nagusia**

Arabako «aldaketarako grina» dagoela uste du EAJko ahal-dungai nagusiak; baina, gehiengo argirik ez dela egongo jakitun, akordioak beharko direla dio: «Gerta liteke akordioak hiru alderdiren artean egitea».

**Lanbidea.** Abokatu da lanbidez, eta 25 urte daramatza jardunean. Merkataritza Zuzenbidean eta Zuzenbide Zibilean lizentziatua da, eta Gasteizen abokatu bulego bat dauka.

**Politika.** Abokatu lana eta politikaren duen kargu publikoak uztartzen ditu 2007tik, ordutik baita EAJko biltzarkidea. 2011tik taldeko bozeramailea da Biltzar Nagusietan.

Dugu higidura garrantzitsua sufritzen ari dela, eta Ciudadanos, berriz, kanpainaren erritmoa ezartzen dabilela, PP bere jarrerara erradikalizatzen bultzatzen ari delako. PPK esan dituen astakeria asko Ciudadanosen parte hartzearen ondorio dira. Borroka estua dago eskuinaren boto erradikalera lortzeko PP, Ciudadanos eta Vox alderdien artean.

**Nolanahi ere, gehiengo argirik ez du inork lortuko, eta ezinbestekoak izango dira akordioak.**

Hala da. Eta gerta liteke akordioak hiru alderdiren artean egin behar izatea. Paktuak ezinbestekoak izango dira erakundearen egonkortasuna eta gobernu indartsu bat lortzeko. Biltzar Nagusietan babes handiena lortzen duen alderdiak agindu beharko luke. Horretarako itunak beharko dira, batez ere inbestidurarako. Ez dut ongi ikusten soilik bere alderdiaren babesa duen alderdi batek agintzea. Ahaleginak egin behar dira akordioak lortzeko, inbestiduran batez ere.

**Bozak irabaziz gero, PSE izango da zure lehentasunezko bazkidea akordioak lortzeko?**

Ez dago zertan lehentasunezko bazkideen inguruan hitz egin. Maiatzaren 25ean eseri beharko dugu, eta indar politikoko bakoitzak bere proposamenak mahai gainean jarri beharko ditu, eta horren arabera ikusiko da norekin lor daitezkeen akordioak inbestidura saioari begira. PP bere burua baztertzen ari da akordioetatik, bere proposamenak erabat erasokorrak direlako. Gainerako alderdien kasuan, ez dugu zertan lehentasunezko bazkideez hitz egin; guztiekin negoziatzeko prest gaude.

**Zein da hartuko duzun lehen neurria ahal-dun nagusi bazara?**

Eragile ekonomiko, politikoa eta sozialekin mahai bat eratu du herrialdearen ekonomia eta enpleguaren susperraldia bultzatzeko. Funtsuzkoa da plan bat denon artean adostea Araba egun dagoen egoeratik ateratzeko. **PPk euskararen aurkako kanpaina gogorra hasi du Araban. Zer iruditzen zaizu?**

Agerian geratu da De Andresek ez duela Araba ezagutzen; bestela, ez luke halako kanpainarik egingo. Araban euskararen normalizazio prozesua ez da inoiz ikarimika iturri izan. Existitzen ez den gatazka bat sortu du PPK.

**Zein neurri jarriko dituzu martxan euskararen alde?**

Azken lau urteotan, EAJk borroka handia egin du kuadrilletan euskararen normalizazio prozesuari bultzada emateko, euskara teknikari bitartez. Gure asmoa da bide horretan sakontzea, eta euskararen sustapenerako politikak kuadrilletan indartzea. Aldundian bertan ere euskararen normalizazio plana martxan jarri zen duela lau hilabete, baina ez da garrantzen ari, eta guk plan hori aurrrera eramango dugu. Eztabaida politikotik atera nahi dugu euskara, ez diolako onurarik egingo.

**«De Miguel auziak kalte egin digu jada, eta ez dakit ondorio gehiago izango duen. Azkar argitu behar da»****«Nire esku dagoen guztia egingo dut Araban haustura hidraulikoaren teknika erabil ez dadin»****Euskara ikasten ari zara?**

Bai, apurka-apurka noa. Irakasle bikain batekin ikasten ari naiz astean hiru orduz, eta aurrerapausoak eman ditut. Nire erronka da legegaldi honen amaierarako euskaraz ongi moldatzea.

**Iruurrari aurre egiteko neurriak ba al duzu?**

Gizarteak gardentasun handiagoa eskatzen digu, bai erabakiak hartzeko moduan, bai arduradun politikoan jarduteko moduan. Hartzen ditugun erabaki guztietan erantzukizun politikoak hartu behar ditugu.

**De Miguel auziak kalte egingo dizuela uste duzu?**

Auzi horrek dagoeneko kalte egin digu, nabarmen. Ez dakit ondorio gehiago ekarriko dituen ala ez, baina nahiko nuke lehenbailehen epaitzea eta argitzea, oso motel baitoa.

**Arabako fracking-a, bai ala ez?**

Askotan esan dut Araban teknika hori erabiltzearen aurka nagoela. Horren erakusgarri da duela gutxi sinatu dudala fracking-aren aurkako plataformaren agiria. Bera, nire jarrera argia da: nire esku dagoen guztia egingo dut Araban haustura hidraulikoaren teknika erabil ez dadin, gure lurraldearentzat eraso bat delako. Hori da nire konpromisoa.